

Nik maitet euskara

2012-2013

IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula zabalik

Izena emateko epea irailaren 25era arte



**ESKAINZA ETA ORDUTEGI ZABALAK
TXANDAKAKO TALDEAK**

1., 2. eta 3. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK/EGA

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA URRIAN

BEKA SISTEMA

**Langabetuek eta lehen mailako ikasleek,
prezio erdia**

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 Arratsaldez: 16:30-20:00

Teresa Murga Eraikina

Goienkale z/g 2. solairua

T. 943170925

euskaltegia@udalermua.net



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre.

LAGUNTZAILEAK:

Amaita Arriaga, Eneritz Arriaga, Leire Elustondo, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza, Valentin Mugarza, Izara Rivas eta Ainara Riveras.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ainhoa Lasuen, Valentin Mugarza, Izara Rivas, Roller taldea, Ane Saénz, Titanic taberna eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Andrea Díez, Nora Mateos
eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

ENARA IPURZURIA *Avión común *Delichon urbicum**



Hegaldi dotoreko enara azpizuri hauei lotuta dut ahaztu ezinena gazte denboretako gogorapen bat: adar batekin harrapatzen zituztenekoa. Euri lanbroarekin, behe-behetik ibiltzen ziren euli-harrapaketan eta Ermuan errekaraino sartzen ziren jatekoaren bila. Otxua baserria eta Ambrosianeko okindegiaren arteko zubian, azpitik beharrean gaintetik joaten ziren, harrapatzeke erraztasunak ematen trebe eta ideoso zirenei.

Sarri ikusi ditut mutil gazteak zubiaren petril ostean ezkutu, arbola adar bat eskuan hartu eta enarok zubi gaintetik pasatzeran, ra! adar hori altxatuz akabatzen. Hamarretik batek jotzen bazuen adar haren kontra, pozik! Lapikokadia ez zuten beteko, baina bien bitartean arratsaldea eman.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4	BOTEPRONOAN.....16
Red Blaze	Koldo Pradera
ELKARRIZKETA:5-7	KIROLZALE17
Txabi Arnal	Ermuko Roller Taldea
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA18
Justo Azagirre eta Pello Mugarza	Mundua konprenitzeko beste modu bat
ERREPORTAJEA10-11	SALEROSKETAK19
Langabetuen asanblada	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....12-13	ANTZINAKOAK.....20
Bertso jaialdia azaroan	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?14-15	KALEKO INKESTA21
Gurasoen bilgunea	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22
	Urriko agenda≠

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Red Blaze

35 eta 17 urte bitarteko gazte hauek 2006an ekin zioten musika egiteari eta abendua baino lehen maketa kaleratuko dute.

1 2006an sortu zen Red Blaze. Ugutzek eta Anderrek bertsioak jotzen zituzten eta Jonek ipinitako iragarkiari erantzun zioten. Jon beste talde batetik zetorren, 'Barra libre' taldetik, eta baxu eta bateria bila zegoen.

2 Hasieran 'Barra libre' izena hartu genuen, baina urte batzuk elkarrekin egon eta gero, aldatzea erabaki genuen. Ugutzek 'Red red' zuen buruan eta Anderrek 'Blaze' eta izen biak batuta Red Blaze sortu genuen. Ekaitz gorria, distira, sugarra... horrelako zerbait esan nahi du.

3 Taldean 4 gara baina Ander Basaguren (bateria eta koroak), Jon Ander Bollar (ahotsa eta gitarra) eta Ugutz Lasunción (gitarra eta koroak) hasieratik gaude taldean. Sortu ginenetik 4 baxujole izan ditugu. Gaur egungoa Andoni Conde da, duela 4 hilabete hasi zen gurekin.

4 Taldea 'Barra libre' ren jarraipena dela esan daiteke musika estiloari dagokionez. Bakoitzak gure gustuak ditugu, gure izaerak, gure influentziak... baina estiloa rockeroa izan da beti.



5 Guk sortutako abestiak ditugu baina bertsioak ere egiten ditugu: The Cult, ZZTop, Bryan Adams eta Diamond Dogs taldeen bertsioak, besteak beste. Guk sortutako abestietan bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu baina Ugutz da lan honetan pisu gehien duena. Ingelesez abesten dugu eta emakumeak, jaiak eta injustiziak dira ardatz gure kantuetan.

6 Hasieran Legarreko lokaletan entseatzen genuen, Eibarren. Ongaraiko lokalak martxan ipini zirenean, berriz, hona etorri ginen. Astean birritan entseatzen dugu gutxienez: asteazken eta ostiraletan. Batzuetan zapatuetan entseatzen dugu.

7 Gure debuta iazko Vertigo Roc-ken izan zen eta oso sentsazio onak izan genituen. Azaroaren 3an Infreñu tabernan jotzeko zita lotu dugu eta hori prestatzen dihardugu. Taldeko gazteek kontzertuetan jotzeko gogoia dute, nagusienek, berriz, musika era lasaiagoan hartzen dugu.

8 Maketa bat grabatuta dugu baina editatu barik dago. Egunen batean argia ikusiko du, Gabonak baino lehen seguruenik.

9 Myspace-n gaude eta bertan gure maketako abestiak entzuteko aukera izan dezake edonork: www.myspace.com/theredblaze

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ


AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Txabi Arnal eta Manu Arnal, idazleak:

“Diktadoreen eta boterearen kontrako oihua da gure liburua”

Buru-hausgarri batean bezala, Txabi eta Manu Arnal anaiek ‘El rompecabezas’ ipuina osatu dute: kontakizunaren atal ezberdinei bueltak ematen, ideiak ahokatzen eta emaitzak behin eta berriz kontrastatzen. Ez da elkarrekin idazten duten lehen liburua, baina Txabi eta Manu beldurrezko generoan estreinatu dira oraingoan eta erronka horren berri emateko, Txabi Arnalekin egon gara hizketan.

- Zer kontaktzen du anaiarekin idatzi duzun liburuak?


Gure gaur egungo gizartearen metafora da, diktadoreen eta boterearen kontrako oihua. Liburu honetan, mandatarari gaiztoari zigorra ipintzen diogu, edozein gauza egin eta gero ezin zarela zigorrik gabe atera adierazteko. 'El rompecabezas' gaizki jokatzeko duen mandataria da kasu honetan eta 'ahuntzak', berriz, zigorra irudikatzen du.

- Umeak metaforaz jabetzen dira?

Zalantzarik gabe, guk baino hobeto ulertzen dute. Umeak ulertzen du liburu honetan gaizkile bat dagoela, gaizkile hori oso maltzurra dela, maltzurkeria handiz jokatzeko duela eta ulertu egiten du horrela jokatzearen zigor bat jasotzen duela. Gaizki jokatzeko horrek ondorio batzuk dituela, alegia. Umeari ez galdetu metafora bat zer den eta ez iezaziozu azaldu gure gizartea irudikatzen duela, hori umeari bost axola! Baina narrazioak kontaktzen duena primeran ulertzen du.

- 8 urtetik gorakoentzako idatzitako ipuina da. Helduek ere irakurri dezakete?

Begira, kontu horrekin eztabaida eta borroka izaten dut. Ni marrazki bizidunetako pelikula ikustera joaten naizenean, 'adin guztietara-



ko' dela ipintzen dute karteran. Liburuak ere 'adin guztietarako' direla diot nik. Ume batentzako proposak izan daitezke, baina baita helduentzat ere. Haur literaturarekin adina mugatzeko joera dago eta ni horren kontra nago: haur literatura, gazte literatura... literatura literatura da! Eta ona baldin bada, edozein adinerako aproposa izan daiteke.

- Zergatik diote orduan umeei zuzenduta dagoela?

Formatuagatik badakit liburutegi eta liburu-dendetan 'El rompecabezas' umeen apaletan ipiniko dutela, irudi asko baititu. Baina li-

buru hau hibrido moduko bat da: erdi albuma, erdi komikia... Irudiak oso bitxiak dira, oso politak, baina jendeak ez daki irudiak ez direla apaingarri bakarrik, irudiek ere istorioa kontaktzen dute. Album baten istorioa bere osotasunean ulertzeko biak irakurri behar dira: testua eta irudiak. Bestela ez duzu ipuin osoa irakurriko.

- Irudiek, beraz, berebiziko garrantzia dute?

Jakina. Irudiek deskribatu egiten dute. Deskribapenaren lan aspergarri hori irudiek egiten dute eta detaile eta ekintza asko eranstean diote narrazioari.

- Pozik beraz Roger Olmos ilustratzaileak egindako lanarekin?

Bai, oso-oso pozik. Roger Olmos errekonozimendu handiko ilustratzailea da. Sari asko eskuratu ditu, tartean bi edo hiru 'White Ra-

ven', eta Espainian ere sari prestigiosoenak jaso ditu.

- Nola kontaktatu zenuten berarekin?

Argitaletxeak erabaki zuen eta anaiari eta bioi komentatu zigutenean harrিতa geratu ginen: "hori handi bat da!", pentsatu genuen. Orain arte idatzi ditudan albumetan oso ilustratzaile onak egin dute lana eta Rogerrekin ere bide bera jarraitu dugula esango nuke.

- Anaiarekin idazten duzun lehen liburua da?

Bigarrena. Lehena orain dela 15 urte idatzi genuen: 'Donde los días nacen muertos'. Hemendik 15 urtera beste bat egin beharko dugu!

- Zeintzuk dira bakoitzak egin dituen ekarpenik nabarmenenak?

Buru-hausgarriaren jatorrizko ideia Manurena da. Testua erakutsi eta galdetu

"Sortze prozesua oso polita da beti eta, bi pertsonen artean egitea, askoz ere politagoa"

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

zidan: “Zer egin dezakegu honekin?” Eta nik argi eta garbi esan nion: “Ipuina”. Nire formazioagatik-edo, ipuinak leku guztietan ikusten ditut nik, Athletic eta Realen arteko derbytik ere ipuina atera daiteke! Anaiak aurkeztutakoari jarraipena eman diot nik eta horretarako beste pertsonaia bat asmatu behar izan dut: ‘ahuntza’. Eskema egin ostean, bion artean garatu dugu istorioa eta toke magikoa Roger Olmosek eman dio.

- Zenbat denbora eman duzue lanean?

Idazten duzunean denbora neurtzea oso zaila da. Baina Manuk testua eman zidanetik liburua kaleratu arte 5 hilabete inguru pasatu dira. Oso arin gertatu da dena. Argitaletxeok oso arin esan ziguten liburua nahi zutela, zerbait berezia sumatu zioten.

- Gasteizen bizi zara eta anaia Ermuan duzu. Neketsua izan da lana aurrera ateratzea?

Internet eta mezu elektronikoa direla medio, gaur egun ez da zaila horrela lan egitea. Gainera maiz ikusten dugu elkar, hileru Ermura etortzen naizelako amarengana. Baina komunikazioa eta elkar idazte hori mezuen bitartez egin dugu. “Begira, hau da nire proposamena”, “Gustatzen zaizu?”, “Ez, nik hau kenduko nioke”... tenisean bezala.

- Prozesu honetan gustura aritu zarete?

Bai, sortze prozesua oso polita da beti eta bi pertsonen artean egitea, askoz politagoa. Idazlearen lanbidea oso bakartia da: Zure buruarekin bakarrik egoten zara idazten duzunean eta nor

bere buruarekin ez da oso kritikoa izaten. Eskertzea da beste batekin lan egitea, zuk ikusten ez duzuna beste horrek ikusiko duelako seguruenik.

- ‘El rompecabezas’ zure beldurrezko lehen liburua da. Nola bizi izan duzu erregistro aldaketa hori?

Ora in arte liburu atsegi-

nak, umorezkoak, sentimentalak edota gordinak idatzi izan ditut eta beldurrezko literaturan murgiltzen ginen lehen aldia izan da bai niretzat eta baita Manu anaiarentzat ere. Ipuin iluna izan behar zuela argi ikusi genuen hasieratik eta erronka handia izan da. Beldurra transmititzeko gai izango ote ginen galdetzen genion gure buruari, ez baita erraza horrelako emozioak sorraraztea. Baina lehen aldia izateko... ez zaigu gaizki geratu!

- Zure lanetan, oro har, irakaspenak edo mezuak ematen dituzu, ezta?

Ez. Liburu honetan mezua badago eta ‘Nicolas’ eta ‘Caja de cartón’ en ere bai baina..., ez da nahita egingandako zerbait. Izan ere, horren kontrakoa naiz: literaturaren helburu nagusia plazera sortzea izan behar da. Horrez gain, liburuak ikaskizun bat edo balore on bat transmititzen badu, ongi etorria!! Baina ez dut uste irakastea literaturaren funtzio nagusia denik.

- Umeak eta beldurra askotan joaten dira eskutik helduta ipuinetan?

Gaur egun ez, umeari beldurra eta arazoak ezkutatatu egin dizkiogulako. Zergatik ukatzen dizkiogu emozio horiek! Umeak beldurra sentitu behar du, bizitzen ikasi behar duen

emozioa da, beharrezkoa da. Liburuaren amaiera zoriontsua bada, hobe, umearen larritasun hori lasaituko delako. Betidanik haur literaturan oso presente egon da beldurra: sorgina, otsoa... eta ba-batean pertsonaia horiek desagertu egin dira. Zer gertatzen da, joder! Kontu horiek haserretzen naiz! Ezin da onartu. Eta bai, aurreko galderaren ildora, behar bada konturatu barik, baliteke nire liburuekin tabuak askatu nahi izana.

- Liburua galegoz ere kaleratuko da, ezta?

Bai, argitaletxea Pontevedrakoa da eta kaleratzen dituzten liburu guztiak galegoz ere kaleratzen dituzte.


- Euskaraz irakurtzeko aukera egongo da?

OqO argitaletxeak Txalaparta argitaletxearekin hitzarmena du eta honi esker OqO-ren bilduma zehatz baten liburu guztiak euskaratzen dira. Baina ‘El rompecabezas’ ez da bilduma horretakoa, beraz, ez da euskaraz kaleratuko.

- Noizko, orduan, euskarazko bat?

Gabonetan ‘El mago rosa’ kaleratuko dut, gazteleraz eta galegoz, eta nik neuk euskaratuko dut. Eta kasu honetan bai, umei bereziki zuzendutako ipuin ‘ganberroa’ izango da.

Dorleta Vidal



ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41



·Teak eta kafeak.
·Belgiako txokolatea.
·Eguneko tea dastagari
·Osagarriak: teontziak,
katiluak, infusoreak....

**Oparitzeko
neurria
egindako poltsak!**

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Pello Mugarza eta Justo Azagirre:

“Ondare hau galdu orduko jasotzie gure geunke”

- *Mallabiko toponimiako lana burutzen dabiz Pello Mugarza eta Justo Azagirre, baina zer da toponimiako lan bat?*

Toponimia lekuen izenak die. Gu Mallabiko etxe, baso, landa, solo, eta abarren izenak batzen gabiz. Horretarako Mallabiko auzuetan ziher gabiz, baserritarrek goguen daukiezen izenak jasotzen. Datuek batzie amaittutekuen, izen danok Euskaltzaindiara bidaliko dittugu.

- *Zer dala eta hasi ziñeten honetan?*

Udaletxetik jaso genun lan hau betetzeko proposamena. Jende nagusixe apurke-apurke badoie eta, gaztiok, zoritxarrez, ez dittugu gure lurren izenak ikesi. Ondare hau galdu orduko jasotzie gure geunke.

- *Noz hasi zineten?*

Pasa dan apirilaren inguru. Udaletxie Euskaltzaindixekin kontaktuen jarri zan lehenengo, eta guk proposamena onartu ostien, auzorik auzo eiben batzarretan azaldu eben zer lan egittera gindoiezen. Honen ostien ekin geuntzen lanai. Batzar honek inportantiek izen zien, izen be, inon basuen izenak galdezka agertziek errezeluek

be sortu leikez! Baina gure lana zein dan azalduetuek, danak ondo hartu gaittue.

- *Aurretik inoz egin izen dozue holakorik?*

Ez. Magisterio garaixen tokau jatan antzeko lantxo bat eittie, baina ez zan ezer serixue izen (diño Pellok). Horregaittik Euskaltzaindixek, eta zehazki Mikel Gorrotxategik, emon euskuezan jarraitu biherreko azalpen batzuk, nundik nora jo jakiteko.

- *Zer suposatzen dau toponimiako lan batek?*

Terrenuen jabiakin harremanetan jartzen gara lehenengo. Bertarutzen gaienien Mallabiko mapa orokor bat eta ortoargazkixek erakusten deutseguz elkarrizketatuari, eta etxie erreferentziatzat hartuz bertatik hasi eta inguruko solo, lur sail, etabarren izenak galdetuz jueten gara. Mallabiko izen danak batzen doguzenien Euskaltzaindiako Mikel Gorrotxategiri bidaliko deuotseguz eta harek programa informatiko baten sartuko dittu.

- *Zenbat izen bildu dozuez oin arte?*

1.200 toponimia inguru jaso doguz, 49 lagun elkarrizketatute. Eta beste horren-



beste batzie espero dogu, Berano, Osmo eta kaskue falta jakuz-eta ondiok!

- *Zenbat denporan espero dozue amaitzie?*

Datorren urterako amaitute eukiko dogula uste dogu. Gerie eta Zengoitte ixie amaitutzat emoten doguz. Areitio be aurreratute dau. Jente askokin berba egindde gagoz eta amaituko dogu ordureko.

- *Ikusgai egongo da lan hau?*

Baietz espero dogu. Guk Euskaltzaindiara bidaliko dogun informazinue mapetan topografiatuko da, eta gero Udaletxiek herritarren aurrin aurkeztu ahal izengo dau. Holan, danon eskure egonda, aukera ona izengo da inok izenen bat gehitu edo zuzendu gure badau.

- *Hainbeste izenen artien kuriosidaderik topau dozue?*

Izen batzuk baserri dantetan bardinek die, ‘etxazpixe’ esaterako. Lur zail bardinerako izen desberdinek be egon leikezela ikusi dogu. Izen kuriosuek be topau doguz. Gerien, esaterako, ‘Potrotxin’ izeneko landa bat badago. Jentiakin lotuteko izenak be badagoz ‘Julienbaso’ edo ‘Antolinbaso’ modukuek. Eta atzien istorixa bat dauken izena be aurkitu dogu: ‘Urreharria’. Zengoiten kontatzen ben sasoi baten landa horretan urrie ezkututzen ete zan edo...

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

**“Jentiakin lotuteko izenak badagoz,
‘Julienbaso’ edo ‘Antolinbaso’ modukuek”**

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

MALLABIKO II. MENDI DUATLOIE – EUSKAL HERRIKO TXAPELKETIE

Aurten be, Mallabiko hainbat gazte boluntarixoren ekimenez, irailan 30ien ospatuko da Mallabiko II. Mendi Duatloie. Proba hau, Euskal Herriko zirkuituko hirugarrena izetez gain, Euskal Herriko Txapelketie be izango da.

Goizetik, 10etan, haur eta gazteek be parte hartzeko aukera izengo dabe, Duatloi txiki-xen. 11etan barriz, Euskal Herriko Duatloi txapelketari ekingo deusiek. Egun horretako egitarau borobiltzeko, antolatzaiek, 14:30erako herri bazkarixe antolatu dabe. Bazkariko tike-tak Herriko eta Bastida tabernetan egongo die salgai. Erreserbak barriz, mallabiaduatloia@hotmail.com helbidien egin ahal izengo die.

Duatloi probari dagokixonez, igez bezala, hiru ataletan banatu egongo da. Bertarutzen dien kirolarixek lehenengo korrika 6,68km eindde, bizikletie hartute 16kmko burutu eta korrika beste 3,34km ein biko dabe. Podiumera igoko direntzako sarixez gain, parte hartzaiek hainbat sari jaso eta zozketa ezberdinetan parte hartuko dabe. Egune gerturatu ahala, informazio gehixau www.mendiduatloia.com webgurien aukiko dozue eskuragarri.



ELIZPEKO PELOTA TXAPELKETIE

Martxan dau Elizpeko III. Pelota Txapelketie. 12 bikotek emon dabe izena aurten eta pasa dan irailan 7xen hasi zien partiduek jokatzen. Partidu danak barikuetan jokatuko dabez. Hiru bikoteko lau taldetan banatu eta talde bako-txak bariku baten jokatuko dau. Talde bakoitzeko lehenengo bikotie urrixan 5ien jokatuko dan semifinaletara sailkatuko da. Finala Urriko jaixetan jokatuko da.

URRIAN ORTU EKOLOGIKOAK MARTXAN

16 lagunek emon eben izena herrixen eingo dien ortu ekologikuetan. Ortuok, Malle Azpi kaleko gaineko landan jungo die, bertan 19-20 partzela eittie aurreikusten da, bakotza 60m2kue. Auzo lanien hasteko, Udalak urriaren 6rako deialdixe ein dau, bertara, baratzetan izena emon dabenek eta baitte laguntzeko interesa duken edonor gerturatu leike. Hasieran aurreikusten dan lana, 36m2ko etxolie montau, erromarak jarri eta lurre goldatu ostien harrixek kendu eta lurre garbitzie da.



MUGA **KIROLK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, teledispositibak, bideoak, musika aparatuek...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€) menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952 (asteartetan itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Langabetuen asanblada, lan kolektiboaren bila

Abuztu bukaeran 1.346 langabetu zeuden Ermuan enplegu zerbitzuetan erregistratuta, 652 gizon eta 694 emakume. Egoera honi astindua emateko nahian Ermuko langabetuen asanblada sortu zen uda aurretik.

Lana lortzeko bide berriak bilatzen hasi ziren Juanan Arnal eta Pedro Perez ermuarrak duela 3 hilabete inguru, langabezian aspaldidanik egoteaz nazkatuta. Pedrok urte dezente eman ditu Barakaldo inguruan lanean eta bertan langabetuen asanbladak oso ohikoak dira, hau da, lan kolektiboa lortzeko asmoarekin biltzen diren langabetu taldeak. Ez dute diru-laguntzarik jasotzen eta ez daukate inongo harremanik instituzioekin, partidu politikoeekin, INEM-arekin, Lanbiderekin edo sindikatuekin. Aldiz, lortu nahi dutena, lan duina da, ezegonkortasunik gabe eta legeak agindutako eskubide guztien bermearekin: lan hitzarmenez finkatutako soldatak jaso eta lan ordu kopuruak eta oporrak errespetatu, besteak beste.

Ezkerraldean, Erandio, Leioan, Muskiz eta Enkartzioetan horrelako asanbladak indar handia izan arren, ez dira oso ohikoak gure inguruko eskualdeetan eta ekimena aurrera atera baino lehen "herriko erantzuna zein izango zen aztertu genuen" -diote Pedrok eta Jua-

nanek-. *'Ermua Opina' foran galdetu genuen eta proiektuak harrera ona izan zezakeela iruditu zitzaizgun*". Hori dela eta, lehen bileratxoa deitzera animatu ziren eta Erandioko asanbladatik etorritako bi lagunek, talde horien funtzionamendu eta gorabeheren berri eman zizkieten bildutako 50 ermuarrei.

Juananek eta Pedrok ez zuten espero horrenbeste jende biltzea baina herrian 1.346 langabetu daudela ikusita "50 lagun bakarrik agertzea oso triste da", diote. Herriaren egoera oso dramatiko da dela diote, 1.346 langabetu horiei enplegu zerbitzuetan apuntatuta ez daudenak gehitu behar zaizkielako (250 edo 300 estimazioen arabera). Emaitza zera da, Ermuko biztanleria aktiboaren langabetu tasa %17koa dela. "Oso etorkizun iluna ikusten dugu, baina optimistak gara, bestela ez genuke asanblada sortuko", argitzen dute.

Gaur egun 40 pertsona inguruk osatzen du Ermuko langabetuen asanblada. 35 eta 55 urte bitarteko langabetuak dira ia gehienak, gizonetzakoak, eta eraikuntzari



lotutako ogibideak dituzte. Baina ez dute inor baztertzen eta, are gehiago, emakumeak, etorkinak eta beste sektoreetako langabetuak erakarri nahi dituzte.

Izan ere, izena ematen duten horiek taldearen hurrengo pausuk jarraitu ahal izango dituzte, abuztuko etena eta gero berriro lanean hasteko gogotsu daudelako: Obrak geldituko dituzte, supermerkatuetara joango dira eta euren lana beharrezkotzat jotzen duten lekuetan aurkeztuko dute bere burua. Gainera manifestazioa egingo dute hilaren 21ean seguruenik.

Lana banatu

Burututako lehen ekintzen artean, plazako obrak gertatzeko bildu ziren asanbladakoak plaza ondoan irailaren 7an. "Plazan lanean dauden behraginak Zaragozakoak

dira eta hori ulertezina da. Herriko langabetuak igeltseroak, enkofratzaileak eta marmolariak gara eta plazako lanak egiteko gai bagara diote. Ez diogu inori lana kendu nahi. Eskatzen duguna da obra batean 16 behargin behar badira, %50 Ermukoak izatea".

Irailaren 7an plazako obrako arduradunarekin berba egin eta gero, asanbladako lagun batentzako edo bi-rentzako lana izan zezakeela komentatu zien. Baina, nola aukeratu behargin bat 40 laguneko talde batean? "Langabezian denbora gehiago daramatenek eta diru-sarrerarik txikiak dituztenek lehentasuna dute lan aukerak jasotzen ditugunean. Baita jubilatzeke urte gutxi gertatzen zaien ere. Baina beti ere, Asanbladaren alde modu aktiboan lan egiten badute". Egindako

**mari
asun** 
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonia 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

lanak neurtzeko puntu sistema erabiltzen dute asanbladak: bileretara doazenak, manifestazioetara, protestetan parte hartzen dutenek edota enkargatuekin hitz egiten dutenek, puntuak gehitzen doaz. Ez dutenek parterik hartzen, berriz, ez dute punturik gehitzen eta arazoak sortzen dituztenek, puntu negatiboak jasotzen dituzte.

Une arazotsuak

Euren estatutuak horrela izanda, argi dago asanblada parte-hartzailea dela eta guztien artean adostu behar dituztela eman beharreko pausuak. Baina ez da erraza, taldeko kide bakoitzak izatera bat duelako. "Ni gauza erradikalagoak egiteko prest egongo nintzateke, 16

urte nituenetik borrokan nabilelako -aitortzen du Pedrok-. Baina Ermuan horrek beharbada ez luke funtzionatuko". "Ez. Egiten ditugun ekintza guztietan errespetuz jokatu dugu -dio Juananek-, gu ere errespetuz tratatzen bagaituzte, behintzat".

Horrelako une arazotsuak bizi izan dituzte dagoeneko, Udalak saihebidia exijitzeko errepidea moztu zuenean. "Langabetuen asanbladakook gure pankartarekin joan ginen, gurea erreklamatzera. Taldeko batzuek irainak bota zizkieten politikoei eta beste langabetu batzuk haserretu egin ziren -gogoratzen dute-. Argi dago Udalarentzako 'deserosak' garela, ez zaielako interesatzen kontu hau zabal-

"Asanbladaren alde lan egiten dutenek puntuak jasotzen dituzte"

tztea, baina gu ez gara ezkutatzen".

Izan ere, alkatearekin aurrez aurre egoteko asmoa dute eta hitzordua eskatu diote, taldea bildu ahal izateko lokala lortzeko. "Bera-ekin ez dugu beste ezer argitu behar. Lan kontuetan ez gaitu lagunduko, beste gauza batzuen artean, ezin duelako. Kontratak eta azpikontratak egiteko bidea ezarrita dagoelako eta berak hori ezin duelako aldatu". Lokala lortu arte, Lobianon biltzen da talde hau, ostegunero, 18.00etan, eta bertan agertu eta izena eman besterik ez du interesa duen edonork.

Herriko langabetu guztiak animatzen dituzte euren parte hartzera, "zure egoera berean dagoen jendearekin hitz egin dezakezulako eta denbora zerbaitetan inbertitzen duzulako. Egun hauetan lanpostu bat edo bi lortuko bagenitu segituan zabalduko litzateke herrian eta jendea hurbilduko litzaziguke, baina...". Era berean lanean daudenak ere ongietorriak izango dira bi-

leretan eta taldeak egiten dituen ekimenetan, "kontzientzia eta elkartasuna" beharrezkoak direlako, euren arabera, eta horiek sustatzeko bideak ezartzen dira taldearen estatutuetan.

Asanbladaren bitartez lana topatzen duten kideek, esaterako, 10 euro eman behar diote hilero asanbladari gastuetarako: kartelak, gasolina, telefonoa eta horrelakoa ordaintzeko. "Kontu honi jarraipena emateko modu bakarra da. Lana topatzen duenak alde egiten badu..., ez goaz inora!".

Era berean, jarraipena emateko gizartearen beste esparru batzuetan eragin nahi du talde honek, hala nola elikagai bankuak sortuta eta etxeen desjabetzeak saihestuz, nahiz eta lehen-tasuna lana den. Eibarren, Durangon, Berrizen, Mallabian eta inguruko herrietan ere asanbladak sortu edo sortarazi nahi dituzte, Deba Behean eta Durangaldean lana bilatzeko sarea sortu ahal izateko eta presioa egin ahal izateko.

Dorleta Vidal



san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Quetzal berria!!

[arropa, bitxiak, opariak...]

ekinetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

ZUTIK
garagardotegia

Ogitartekoak,
hanburgesak,
plater konbinatuak,
kaxolak....

konpainiarik onenean!!

Zubiaurre 21 - arkupeetan
ERMUA • 94317 39 78

ETXERA
eramateko
616 80 22 81

Zure publizitatea...
drogeteniturri
aldizkarian

943179350
688 632876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO JARDUNALDIAK DEBEGESAN

‘Dibertsifikazioa eta barne-kintzailetasuna enpresan’ izenburupeko jardunaldiak egingo dira irailaren 25ean Debegesan. Ekimen hau ‘Ostiralak Debegesan’ programaren baitan kokatzen da eta ETEi zuzenduta dago, Enpresa Txiki eta Ertainei, alegia. Doakoa da, lau orduko iraupena du eta izena eman nahi dutenek mezua bidali beharko dute pymes@debegesa.com helbidera.

1.500€ BANATUKO DITU EMOEK

Urriaren 31 bitartean 1.500 euro banatuko ditu Ermuko Merkatarari eta Ostalarien Elkartek, 5, 10, 20 eta 50 euroko erosketa-txeketan. Saria jasotzeko ‘Ermua merkataritza zentroko’ txartela erabili beharko da.

88 IKASLE LANBIDE HASTAPENERAKO IKASTEGIAN

15 eta 18 urte bitarteko 88 lagunek eman dute izena 2012-2013 ikasturterako Ermua-Mallabiko Lanbide Hastapenerako ikastegian. Gazte horiek hainbat ogibidetan trebatzeko aukera izango dute, hala nola, ibilgailuen konponketarako laguntzaile izateko, industri-mekanikako langile edota ile-apaindegiko laguntzaile izateko eta, gainera, inguruko enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute.

Emakumearen Topalekuak egitarau berria kaleratu du

Abendura bitartean burutuko dituen ekimenen berri emateko, egitaraua aurkeztu berri du Emakumearen Topalekuak. Jabekuntza eskolaren barruan 3 tailer egingo dira. Lehenengoa ‘Emakumeok eta erotika: nire plazeragatik, nire plazererako’ izango da, urriaren 5ean eta 6an. Irakaslea Saioa Hernández izango da eta ikastaroak 8 orduko iraupena izango du. Urriaren 16 eta azaroaren 20aren arteko martitzenean, ‘Krisian egoteko garaia’ tailerra eskainiko da, 18.00etatik 20.00etara, eta Inma Merino izango da 12 orduko ikastaro horren arduradun. Urriaren 10etik azaroaren 7ra, azkenik, ‘Zer gauza daki zure gorputzak zuk (oraindik) ez dakizuna?’ ikastaroa gidatuko du Patricia Verdés, asteazkenero. Ikastaro guztien prezioa 5 eurokoa da eta izena eman nahi dutenek, Izelaieta kalean dagoen Emakumeen Topalekuan galdetu beharko dute. Honez gain, irteera kulturala egingo da urriaren 6an eta, izena ematen dutenek, 6 kilometroko ibilbidea eta bisita gidatua egiteko aukera izango dute Kastro Urdialeseko Donejakue bidetik eta herriko hirigunetik, hurrenez hurren.



Errotabarri eskubaloi klubak senior taldea osatu du

Aurten sortu den Errotabarri eskubaloi klubeko senior taldeak irailaren 14an jokatu zuen bere aurreneko partida Elgoibarko Tecnifuelleren kontra, Euskadiko txapeldunen kontra, alegia. Partida Ermuko kiroldegian jokatu zen eta ermuarrek 23-30 galdu zuten nahiz eta oso sentazio onak izan zituzten, euren blogean irakurri daitekeenaren arabera. Euren entrenatzailea Asobal ligako Slava Kovin jokalaria ohia da eta lehen partida honetan *“motibatuta eta taldea aurrera eramateko gogoarekin ikusi dugu -diote Errotabarrikoek-. Bere esperientziarekin eta gure nesken adorearekin taldea aurrera aterako dugu!”*.

Martxan da XIX. Juanita Ibaibarriaga lehiaketa

Gazte eta helduen artean euskaraz idazteko zaletasuna pizteko helburua duen Juanita Ibaibarriaga literatur saria abian da jadanik. Urtero bezala, bi kategoria egongo dira: ume-entzako eta helduentzako. Lehen modalitatean Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko umeek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Ikasturte bakoitzeko 40 euroko erosketa txekea emango zaie irabazleei eta irabazteko gai libreko ipuin edo narrazioa aurkeztu beharko dute parte hartzaileek. Bigarren modalitatean gainontzeko herritarrek parte hartuko dute eta horiek 4.600 eta 5.600 karaktere arteko erreportajea idatzi beharko dute. Saria, kasu honetan, 360 euro dira. Azaroaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak e-mailez (euskara@udalermua.net), Lobiano Kulturgunean edo Udal Liburutegian. Sari banaketa, berriz, Udal Liburutegian izango da abenduaren 3an, astelehena. *(Argazkian iazko edizioko irabazleak ikus daitezke).*



Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Eskerrik asko txikurizaleok!!

Santixau jaietako txikurixan nola edo hala laguntza eskaini diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizue Euskal Birusa elkarteak: Alazne Aiestaran, Alex Alvarez, Izaskun Alvarez, Jon Alvarez, Leire Alvarez, Gorka Alzaa, Aiala Amesti, Goizargi Amesti, Igone Amesti, Mari Nieves Antxustegi, Oier Araiztegi, Eli Areitioaurtena, Gaizka Areitioaurtena, Jon Areitioaurtena, Amaia Arriaga, Eneritz Arriaga, Esti Arrizabalaga, Irune Asumendi, Asier Azagirre, Rosa Baltar, Araitx Barrietabeña, Alberto Belar, Julen Berriozabal, Nerea Berriozabal, Roberto Bilbao, Gorka Biribai, Maria Boliña, Ainhoa Cid, Mikel Cid, Beñat Delgado, Iñaki Delgado, Iker Elorza, Andoni Esmeralda, Nagore Espilla, Txomin Espilla, Adei Fernández, Begoña Fernández, Juan Fernández, Juanmanolo, Teresa Garai, Aitor González, Estibalitz González, Juanjo Gorritxategi, Maria Hormaetxea, Asier Ibaibarriaga, Maitasun Idigoras, Izagirre sendia, Edu Izarra, Aitor Jauregi, Rosa Jaussi, Aitzol Lejardi, Aroia Lejardi, Alicia Lorenzo, Edurne Madariaga, Gloria Mallea, Oskar Morales, Manuel Moreno, Patricia Mujika, Bea Narbaiza, Thomas O'Callaghan, Aitor Ogiza, Esti Olano, Iban Pérez, Itsaso Pradera, Hiart Redondo, Maitane Romero, Ane Saéñz, Iker Saez de Zaitegi, Karmen Solozabal, Maria Totorika, Jokin Txapartegi, Elias Uriarte, Iraide Uriarte, Iratxe Uribelarrea, Leire Uribelarrea, Mari Karmen Urkidi, Dorleta Vidal, Berta Yarza, Nati Yarza eta Idurre Zuazua. Ahazten zaigun baten bati eta tragoxka eta dantzara etorri zinetenoi ere, milesker eta datorren urtera arte!

XXIII. San Martin azoka azaroaren 10ean izango da

San Martin Kulturala
Bertso jaialdia
 Ermua Antzokian, azaroaren 2an, 22.15ean

 Maialen Lujanbio	 Sustrai Kolina
 Igor Elorza	 Uxue Alberdi
 Beñat Ugartetxea	 Anjel Mari Peñagarikano
 Gai Jartzailea	 Josu Goikoetxea

Sarrera: 10€
 Lobiano Kulturgunean,
 BBKko kutxazain,
 webgunean eta
 944 310 310
 telefonon salgai.

Urtero lez, azaroko bigarren larunbatean ospatuko du Euskal Birusa elkarte kulturak San Martin azoka. Taldeko kideek eta laguntzaileek antolaketari ekin diote jadanik eta euren laguntza eskaini nahi dutenek 943179350 edo 688632874 telefonoetara deitu dezakete. Honekin batera San Martin kulturaren egitaraua osatzen doa taldea eta burutuko diren ekitaldien artean bertso jaialdia egongo da. Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina, Igor Elorza, Uxue Alberdi, Beñat Ugartetxea eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariek hartuko dute parte aurtengo saioan, eta Josu Goikoetxea gai jartzaile lanetan arituko da. Bertso jaialdia azaroaren 2an (ostirala), 22.15ean egingo da, Ermua Antzokian eta sarrerak 10 eurotan salduko dira, Lobiano Kulturgunean, BBKko kutxazainetan eta webgunean eta 944 310 310 telefonon.

*San Martin azokan parte hartu nahi duten baserritarrek eta ekoizleek urriaren 8tik 19ra bitartean eman beharko dute izena. Informazio gehiago Euskara sailean: 943 17 91 47.

LAU ERMUAR HAUTAGAI IZANGO DIRA URRIKO HAUTESKUNDEETAN

2013rako aurreikusita zuden Euskal Legebiltzarreko Hauteskundeak urriaren 21era aurreratu dira eta 4 ermuarren izenak joango dira alderdi politiko ezberdinen zerrendetan. Dani Maeztu (Durango, 1974) EH Bilduren Bizkaiko zerrendetako 4. da. Maeztu Aralarreko koordinatzaile ordea da gaur egun. Mireia Arginzoniz (Ermua, 1976), zuzenbidean lizentziaduna, zerrenda bereko 24. postuan aurkeztuko da. Mari Mar Blanco 6. da PPko Arabako zerrendetan eta ekonomian lizentziaduna den Carlos Totorikak (Ermua, 1956) berriz, PSE-EEko Bizkaiko zerrenda itxiko du.

URRIAREN 12TIK 27RA BURUTUKO DIRA 2012KO MENDI JARDUNALDIAK

Artarrai Mendi Taldeak urriaren burutuko ditu aurtengo mendi jardunaldiak. Jardunaldi horietan hainbat gai eta ekintza jorrotuko dira: ikus entzunezkoak, hitzaldiak, Europako Tontorretara irteera eta argazki lehiaketa, besteak beste. Hizlarien artean Irati Anda eskalatzailea eta Euskadiko Federakundeko medikua izango dira. Jardunaldiak urriaren 12tik 27ra bitartean gauzatuko dira eta ekitaldi guztiak Lobianon egingo dira.



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
 Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



D. ARRAL 97 S.L.
 Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
 arral@arral97.com
 www.arral97.com

Ardo banatzailea:
 Luis Cañas
 Cantosan Verdejo
 Viña 65 Verdejo
 Amaren
 Añada Real
 Cava Oriol Rosell
 Nitida
 Montepinos

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**



Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

 Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Titanic tabernak Ermua ordezkaturako du pintxo lehiaketan

Aurrenekoz Ermuak ordezkaritza izango du urriaren 12a eta 21a bitartean burutuko den XV. Bilbo Bizkaia Pintxo Txapelketan. Izan ere, Titanic tabernako Jesus Gonzálezek urrezko zotza irabazteko bere onenak emango ditu.

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duten txapelketa honetan 100 taberna lehiatuko dira eta lehiakideek bi kategoriatan parte hartzeko aukera izango dute: bakailao pintxoak egiten edota pintxo libreak egiten. Titanic tabernak kategoria bietan parte hartuko du, uda aurretik bere proposamenak onartuak izan eta gero.

Lehen kategorian bakailaoa tenperatura baxuan pikulioarekin aurkeztuko dute, ketutako patata kremarekin eta txakolinarekin egindako gezurretako kabiarrarekin.

“Oso pintxo gozoa da -dio Jesus González tabernariak-. Ermuko aurtengo pintxo lehiaketan aurkeztu genuen mokaduaren antzerakoa da eta jendearek asko gustatu zitzaion”. Horren adierazle da pintxo lehiaketako bigarren saria lortu zutela. Eta merzitako saria dela esan daiteke, kontuan hartzen bada tabernariak 4 hilabeteko sortze-prozesua behar izan zuela pintxoak borobiltzeko.

Epaimahaia ustekabea

Bigarren pintxoak zaldi apizuna plantxan da, ondoez egindako bitsarekin eta patata hostopilarekin. *“Bizkaiko*

bi herritan bakarrik saltzen dute zaldi oke-la, tartean Ermuan, eta hori aprobetxatuta pintxo hau egitea pentsatu genuen”, azaltzen du Jesussek.

Lehiaketako astean, urriaren 12tik 21era bitartean, pintxo biak salgai egon behar dira Titanicen 1,50 eurotan bakoitza. Gainera, zerbitzariak eta taberna ondo identifikatuta egon behar dira. Bere burua aurkeztu barik pintxoak dastatuko du epaimahaia eta lehiaketara aurkeztutako pintxo guztien artean 7 aukeratuko dira. Horiek urriaren 22an jendearen aurrean prestatu behar dituzte tabernariak Bilbon.

Sari banaketa urriaren



22an izango da eta aukeraturako hiru irabazleek ez dute dirurik jasoko, urrezko, zilarrezko eta brontzezko zotza baizik. *“Horrek ez dauka garrantzirik -dio tabernari honek-, prestigioa eta jendearek gustatzea da gure benetako nahia”.*

200 pintxotik gora

Jesus Gonzálezek 21 urte daramatza Titanicen lanean, azken 6ak jabe bezala beste bazkide batekin, eta originaltasuna eta gustua dira eurek egindako pintxoaren ezaugarri nagusiak. Horri esker, ostegunetan egiten den pintxo-potean 200 pintxo baino gehiago saltzen dituzte astero, 3 orduko epean.

Lehiaketari dagokionez, Bilbo eta Bizkaiko lurralde historikoaren irudi gastronomikoa sustatzea, miniatura sukaldaritza ezagutzera ematea eta barrako ostalari-tza sustatzea du helburu.

Dorleta Vidal



Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreterianboto.es

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Yolanda Martín eta Leire Moya:

“Gurasoek izan ditzaketan zailtasunak prebenitzen laguntzen dugu”

Urritik aurrera Ermuko Udalak antolatutako Gurasoen Bilgunea parte hartzeko aukera egongo da. Ekimena doakoa da eta ludoteka zerbitzua eskainiko da.

- Noiztik darama Ermuko Udalak Gurasoen Bilgunea egitasmoa antolatzen?

1996. urtean hasi zen. Hala ere, askok Gurasoen eskola izenarekin gogoratuko dute. Aurreko urtetik Gurasoen Bilgunea deritzogu.

- Non ikusi zen talde hauek sortzeko premia?

Gurasoek beraien esperientziak partekatzeko duten beharretik sortu zen. Hau da, antzeko egoera bizi izaten ari diren gurasoekin hitz egiteko gune bat eskaintzeko premia ikusten zen eta eskari horri erantzuna ematea erabaki zuen

Udalak. Bestalde, zailtasunak aurreikusten eta prebenitzen laguntzen dute mota honetako programek.

- Zein da talde hauen helburu nagusia?

Esan bezala, gurasoek izan ditzaketan zailtasunak prebenitzen laguntzen du programa honek eta hori da Udalaren helburu nagusia. Horrez gain, gurasoei gurasotasunaz hitz egiteko aukera ematen zaie eta bertan egunerokotasunean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko tresnak ematen saiatzen gara.

- Zeini zuzentzen zaio egitasmo hau?

Komunitate osoari, baina seme-alaba adingabeak dituzten gurasoei zehatzago. Ohi-koagoa da amek parte hartzea baina aukera hau aprobetxatu nahi dugu aitei ere gonbitea luzatzeko, taldeei asko eskaini baitiezaiekete.

- Zer egiten da saio horietan?

Ordu eta erdiko saioak dira hezitzaile edo psikologo batek dinamizatuak. Protagonismo osoa gurasoek daukate eta profesionalak dinamizatzaile papera dauka. Gai baten inguruan lan egiten da baina gurasoek askatasun osoa daukate hitz egiteko. Hori guztia ikus-entzuzko materialarekin eta dinamikekin osatzen da.

- Talde desberdinak osatzen dituzue. Zeren arabera egiten dira taldeak?

Seme alaben garapen eta parte arabera. Horrela hobeto egokitzen dira gaiak momentuko beharrianetara.

- Urteak daramatzazue saio hauek antolatzen. Zer nolako emaitzak izan dituzue orain arte?

Parte-hartzea nahiko aldatzailea izaten da guraso kopuru aldetik, baina gurasoen balorazioa oso positiboa izaten da, saioak luzatzeko eta kopurua handitzeko eskatzen dute. Beraiek ere guraso gehiagok parte hartzeko premia sumatzen dute, elkartrukean baitago talde hauen aberastasuna.

- Zer esango zeniekete gurasoei talde hauetan parte har dezaten?

Oso esperientzia aberargarria izan daitekeela. Egun daramagun erritmoarekin zaila da halako jardueretan parte hartzeko tartea lortzea, baina oso giro lasaia sortzen da eta aukera paregabea da norberari eta bere gurasotasunari denbora eskaintzeko. Bestalde, antzeko ardurak dituzten gurasoak ezagutzeko aukera ematen du. Azkenik programa hauek lantalde batek diseinatu ditu eta hori eskertu behar zaie Gurasoen elkarrekin, eskolei eta osasun zentroari. Interesa dutenek 943179161 edota 943179162 telefonoetara deitu dezakete.

Ane Sáenz



Ezkerrean Leire Moya, Udaleko langile soziala, eta eskuman Yolanda Martín, Agintzariko hezkuntza arloko kidea.

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Kopi-Fax

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

K O L D O P R A D E R A

- **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Kalean, egun osoa kalean, Kalbarion eta beti kirola egiten; frontoian pilotan jokatzen, futbolean eta bizikletan.

- **Bizikletak ofizio ere izan zenituen, ezta?**

Bai, Olarra eta Seguros Bilbaorekin aritu nintzen bizikleta mekaniko eta Euskadi Fundazioan ere, eskolak ematen egon nintzen. Euskaltel-Euskadi txirringuluri taldearekin pare bat karre-ratan ere ibili nintzen bizikletak konpondu eta prest ipintzen. Gaur egun baina, Ermua eta Mallabi arteko Garbigunearn nago lanean, eta gustura bertan.

- **Zer da gehien estimatzen duzuna lan honetan?**

Batez ere neure eran ibiltzea. Neuk antolatzen dut lana egunean zehar zelan egin eta lasai ibiltzen naiz. Ordutegia ere ona dut.

- **Eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Duda barik astelehenetan zaborrez gainezka egotea kanpoaldea. Jendeak asteburuak aprobetxatzen ditu etxeko edo batek daki nongo garbiketarako egiteko eta astelehen goizetan Garbigunerako sarrera trastez beteta topatzen dut. Bestela ere, egunero aurkitzen dut pilotxo bat ate ondoan neure zain. Ordutegi bat dugu jasotzeko baina jende asko orduz kanpo ibiltzen da. Hori berez partikularrek erabiltzeko da, baina igeltsero eta autonomoek



Mallabitarra, Kalbario kaleko semea, hiru neba-arreben artean zaharrena. 34 urte ditu eta gaur egun Berrittun bizi da neskalagun Karmelarekin. Ermua eta Mallabiko Garbiguneko langilea eta Mallabiko Bilduren udaleko zinegotzia da.

ere ekartzen dituzte trasteak, zer egingo diogu ba!

- **Gauzen bila ere etorriko da bakarren bat...**

Bai, jende mordotxoa egunean zehar, altzariren bat ikusi duela eta gustatuta etxera daramala, edo telebista hondatu zaiola eta zaharraren truke beste bat hartzera eta horrelakoak. Orain baina, debekatuta dago. Nik ezin diot inori ezer eman. Lehen lasai har zenezakeen edozer, arazoa kobrea bila telebista eske etortzen direnkin eduki genuen, telebistak txikitu, kobrea atera eta kristo bat eginda bueltatzen zituzten. Mankomunitatean erabaki zuten ez zitzaiola

inori ezer emango aurrerantzean. Gero, zerbait eskatzen datorrenak uste du saldu eta negozioa egiten dugula hemen gaudenok txatarra edo kobrea edo beste edozerekin, baina hori ez da horrela.

- **Zer erakutsi dizu lan honetik?**

Zaborren gaia oso serioa dela. Aldaketa bat behar dugu zaborren gai honekin eta gaztelaraz esaten den 3R-en printzipioa ikasi: Reducir, Reutilizar eta Reciclar, hau da, kontsumoa murriztu, bererabili eta birziklatu. Kontzientzia sortu behar dugu herritarrengan eta zero zabor sortu gure herrian. Benetan sinesten dut ahal dela.

- **Bizio bat?**

Janaria. Oso gustuko dut ondo jatea.

- **Afizio bat?**

Pilota eta bizikleta.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Nahiko lasaia naiz baina krisi honek eta egunero gauza berdina entzuteak sutu egiten nau apur bat, bai.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Lagun koadrilan elkartzen garenean erabiltzen ditugun gaiek eta batez ere Mikel Narbaizak.

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Zintzoa izatea eta lagun-tzeko prest egotea.

- **Musika mota bat?**

Euskal Rocka gehienbat.

- **Bidaia bat?**

Edonora baina segun norekin, bizikletan alforjak hartu eta Kuba, Italia, Transpirenaica eta abar lagunekin, Karmele ez litzateke etorriko. Berarekin beste nora-bait, edonora.

- **Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?**

Ederri, nire txakurrari jaten ematea. 13 urte baditu eta zahartzen hasita dago...

- **Zerbait egin ez izanaren pena duzu?**

Gehiago ez ikasi izanaren pena dut, baina ez zitzaidan asko gustatzen...

- **Zein albiste gustatuko litzaizuke entzutea?**

Krisia amaitu dela eta Euskal Herria independentea dela.

Eneritz Arriaga



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

José Luis Arévalo, Ermuko Roller taldeko arduraduna: “Oreka lortu ostean, bi urte inguru behar dira maila egokia lortzeko”

Ermuko jende talde bat elkartu eta Ermua Roller taldea sortu zuten duela 4 urte. Hasieran taldean 5 lagun baziren ere, pixkanaka jende berria hurbiltzen joan da eta egun 50 kide inguru dira. Patinak jantzi eta herriz herri kirola egiteaz gain, lagunarte ederrean, Euskal Herriko hiri askotan patinatzeko aukera izan dute. José Luis Arévalo taldeko arduradunarekin izan gara.

- Nolatan sortu zen taldea?

Kasualitatez sortu zela esango nuke. Patinatzea gustuko genuen 5-6 lagun elkartu eta besterik gabe, elkarrekin ateraldiak antolatzen hasi ginen. Urteak aurrera egin ahala, jende berria hurbiltzen hasi zen. Gaur egun 50 lagun gara.

- Zein da taldean dagoen jendearen adin tartea?

Adin ezberdinekoak elkar-tzen gara. Gehienak 20 eta 45 urte bitartekoak gara baina tartean batzuen seme alabak ere badaude 2-14 ur-

te bitarte dituztenak.

- Noiz elkartzen zarete?

Astelehen eta asteazkene-ro, Ermuko kiroldegian. 19.30etik 20.30era maila altuena dutenak eta 20.30etik 21.30era hastapen maila dutenak. Arkaitz Aja aritzen da maisu lanetan.

- Zaila da patinatzen ondo ikastea?

Lasaitasunez ekin beharra dago. Oreka lortu ostean, astiro joan behar da. 2 urte inguru behar dira maila egokia lortzeko. Frenatzen ikasi, mugimenduak landu.



Erorketa txar batek ondorio larriak utz ditzake.

- Noiz hasten da patinatzeko denboraldia?

Maiatza, ekaina eta uztaila dira hilabeterik egokienak. Eguraldia lagun, gozamen bihurtzen da. Udazkenean, patinatzeko aukera gutxiago izaten denez, barruan patinatzen dugu, hockey-an jokatuz adibidez.

- Ermua inguruan ba al dago patinatzeko gune egokirik?

Ez daukagu leku asko. Hambrere ingurura joan beharra dago. Elgoibartik Maltzagarako bide gorria ere egokia da.

- Herriz herri ere ibiltzen zarete...

Patinatzeaz gain, herriak ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Gasteiz, Donostia, Bilbo, Iruña... kalez kale patinatzeaz gain, bisita turistikoak egiten ditugu. Lagun asko egin ditugu honi esker.

- Noiz egiten dituzue ateraldiak?

Asteburuetan izaten dira. Larunbat edo igandeetan.

- Inguruko herrietan bada-go halako talderik?

Badakigu Elgoibar aldean badela talderen bat baina Eibartik adibidez, guregana etortzen dira.

- Zer esango zenioke Ermuko jendeari?

Animatu daitezela. Ondo pasatzeko aukera nahi badu, lagunarte polita aurkituko duela Ermua Roller taldean. Informazio gehiagorako, facebook-en Ermua Roller jarri eta bertan aurkituko du informazio osoa.

- Epe laburrean asmorik?

Urriari 15 kilometro dituen lasterketa batean parte hartzeko asmoa dugu. 4 lagun han izango gara.

- Besterik?

Sarritan bide gorrietan oinezkoekin edo bizikletekin bat egiten dugun arren, errespetuz jokatzen saiatzen gara eta horrez gain, Ermuan bidegorri gehiago izatea eskertuko genukeela bai patinatzeko zein oinezkoentzat ere.

Asier Ibaibarriaga



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Mundua konprenitzeko beste modu bat

Historikoki asko izan dira gizabanakoek sortu izan ditugun hondamendiak. Gertaera horien guztien oinarria bera izan da beti. Indarra edo eta gezurra erabiliaz, zentzu gabeko handikeria irrazional batek edo eta interes berekoienak gidatuta, bestea, gugandik ezberdin sentitzen duguna menperatzea.

Egun hauetan, Maximo Sandin biologoaren hausnarketak ezagutzeko aukera izan dut. Darwinismoa, biologiaren ikuspegitik, funts zientifiko gabeko teoria dela dio, eta normalean gertatzen den bezala, orduko boteredunen bizimodu legitimatzeo erabili zutela. Bat nator. Gizakia (guri dagokigunez, mendebaldekoa, zuria, gizona, heldua) lurraren, animalien, besteen jabe bihurtu zeneko kontu beraren jarraipena. Natura konpetentzian sortzen da eta 'gaitu'nak bizirauten du. Hori kontatu ziguten

eta mundu-ikusker hori geure baitan gehiago txertatzea lortu zuten.

Bizia, hala ere, ez da baldintza horietan sortzen eta hazten. Eskuhartzerik gabe, naturan, berez, denak du lekua, dena dago konektatua, denak du zentzua. Hartueman orekatu batek ahalbidetzen du. Batzuetan alde batera, beste batzuetan bestera, baina, mugimendu guztien baitan dago ordenarako joera.

Badirudi hasiera batean, gure antzinatasun ia ahaztuan, naturarekin bat sentitzen ginenean, harmonian bizitzen bagenekielan. Esentzian zer garen ahaztu dugula ematen du.

Utopia ederren ameslari izan naiz beti. Mundu hobere baten sor-kuntza posible dela sentitu izan dut beti. Bai, badakit, lan handia dagoela egiteko. Egia zain dauka-gu, hala ere. Naturan oinarritutako



Ainara Riveras

mundu-ikusker berreskuratu, guran sakon sentitu behar dugu berri ere. Bigarren baldintza praktikan jartzea. Kanpoan dagoena barruan dagoela konprenitu nuen orain urte batzuk. Karmele Jaiori irakurri izan diodanaren harira, ni ere konturatzen hasia naiz, bizi-tzaren gorabeheretatik harantz, pertsona bakoitzaren barnean ezkututzen den mekanismoak ematen diola zoriontsua izateko eskubidea.

Abundantzia materialean soilik oinarritutako aroak porrot egin du. Bagenekien. Ea gutako bakoitzaren milaka aletxoak batuaz, zintzotasunezko erantzukizunaren arora salto egitea lortzen dugun. Posible da. Munduan askok egin izan dute, egunero egiten dute.

Pertsona bakoitzaren barnean ezkututzen den mekanismoak ematen dio zoriontsua izateko eskubidea

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

LANA

Haur Hezkuntzako hezitzaile euskalduna eta esperientziaduna, goizez nahiz arratsaldean Mallabi eta Ermuan umeak zaintzeko prest. Auto propioa. © 619811629

Alemaneko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen truke eta HEOeko azterketen prestaketa. © 670793312.

Mutil arduratsua eskaintzen da baserriak, etxeak eta bulegoak garbitzeko. Baita zaharrak ospitalean edo etxean zaintzeko. © 688812845



Irailaren 10ean
Zorionak amatxo etxeakoz partez.



Irailaren 15ean
Zorionak Peru eta musu handi bat etxeko guztion partez.



Irailaren 16an
Zorionak Ainhoa zure 6. urtebetetzeari Joseba, aita eta amaren partez.



Irailaren 19an
Gure 'beltzarane' 6 urte bete ditu: segi horrela, alai eta maitekorra. Ama, aita eta Jonen partez.



Irailaren 10ean
Zorionak izeba Ines! Zure gurasonen, 4 neba-arreben eta zure iloba Oierren partez.



Irailaren 5ean
Zorionak Hamma; Beñat, Maier eta zure familiaren partez!!



Urriaren 7an
Zorionak guapo eta ondo pasatu zure laugarren urtebetetzeari famili guztia- ren partez.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
URRIAREN 19a

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

komunitateak aseguruak

San Pelayo

aholkularitza fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

MALLABIA 1961

Argazki hau Berrizen aterata dago, 1961ko urriaren 28an, ezkontza egun batean.

Bertan daude:

Juanito Bastida,
Maria Pagaldai,
Dominga Garitagoitia
eta Maria Bastida.



ERMUA 1940



'Estaziñopeko kuadrillia' legez ezagutzen zen mutil aldra hau eta gorengo hilaratik hasita, ezkerretik eskumara daude Angel San Martín, Txomin Elejalde, Tomas Bengoetxea, Alfonso Yarza, Victor Olañeta, José Iturriagagoitia, Félix Iturriagagoitia, José Ramón Iturriagagoitia, León Iturriagagoitia, Javier Mallagarai eta Santos Totorika, 11 urteko mutikoa. Mantxibarreko basoan egunpasa egiteko ohitura zuten: bazkaldu, ipuin mordo bat esan, afari-meriendatxoa gero... Ermuan jarraitzen zuten gero parrandan. Astoz, asto-saretan kurioso-kurioso ipinita eramaten zituzten lapiko eta abarrok; Santos gaztea arduratzen zen horretaz eta txakur handi banako eskupekoarekin, pozarren etxeratzen zen berau.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu eta Unibertsitatera joaterako orduan, ikasleen %43k gustuko en dituen ikasketak aukeratzen ditu. Ikerketek diotez, %36k, berriz, etorkizunean izan ditzaketen lan aukeren arabera egiten du hautua.

Zer ikasiko duzu?

Zeren arabera egin duzu aukeraketa?

Beste aukerarik izan duzu?

laz ingeniariatza ikasten egon nintzen eta ez zenez nik espero nuena, karrera utzi eta zientzia politikoak ikasteari ekin diot. Ez dut bestelako aukeretan pentsatu, seguru nago!



Aitzol Lejardi, 19 urte



Psikologiako 3. ikasturtea hasi berri dut. Hasieran ez nuen oso argi zer ikasi, baina pentsatu ostean psikologia oso interesgarria zela iruditu zitzaidan. Hala ere banituen beste aukera batzuk: Pedagogia, Magisteritza, Gizarte Langintza...

Nekane Luque, 20 urte



Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasten dut. Etorkizuneko lan aukerak kontutan izanda aukeratu nituen ikasketak: gure inguruan enpresak daude eta horietan administrariak beharrezkoak dira. Gainera, unibertsitateko ekonomia irakasle izan naiteke. Bestela, Lehen hezkuntzarako irakasle ikasketak egingo nituzke.

Karmen Hernandez, 21 urte



Datorren urtean Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasten hasiko naiz. Ez dut beste aukeretan pentsatu, nire burua lan hori egiten ikusten dut.

Laura Benavides, 17 urte

Ingeniaritza zibila ikasten ari naiz Donostian. Eraikuntzarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuen baina notak ez zidan eman Arkitektura egiteko. Ingeniaritza elektronikoa sartzeko aukera izan nuen, baina gustura nago egin dudana hautuarekin.



Oier Juez, 19 urte



Informatika ikasten dut Ermuko Unian. Lekeitiarra naiz eta gertutasunagatik aukeratu dut informatika. Kirolarekin zerikusia zuen zerbait ere nire aukeren artean zegoen.

Zigor Cantero, 17 urte

Amaia Arriaga eta Leire Elustondo



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

Matrikula zabalik:
INGELESA
FRANTSESA
ALEMANA

LHko eta DBHko
LAGUNTZA ESKOLAK

Animatu eta deitu!!



Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

ZINEA

- Hilaren 6tik 8ra.
 - Hilaren 13tik 15ra.
 - Hilaren 20tik 22ra.
 - Hilaren 27tik 29era.
- Zehaztu gabeko filmeak.
Hainbat ordutegi.
Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA

- Hilak 7.
 - Hilak 14.
 - Hilak 21.
 - Hilak 28.
- Zehaztu gabeko filmeak.
17:00etan.
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

- Hilak 4.
 - Hilak 11.
 - Hilak 18.
 - Hilak 25.
- Zehaztu gabeko filmeak.
20:30ean.
Ermua Antzokian.

MUSIKA

- **Hilak 11:**
Opera ikus-entzunezko emanaldia: Bizeten 'Carmen'. Zuzendaritza: Daniel Barenboim.
20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

- **Hilak 19:**
Kantu emanaldia: Ainhoa Zuazua (ahotsa) eta Carlos Imaz (pianoa).
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

- **Hilak 20:**
Blues kontzertua: Velma Powel & Bluesdays.
20:00etan. Lobianon. Sarrera: 8€

- **Hilak 26:**
Zartzuela: 'Los gavilanes', Masa Coral del Ensacheren eskutik.
20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

- **Hilak 27:**
Kalejira Ermuan kantuan.
12:30ean. Orbe Kardenalaren plazan.

DANTZA

- **Hilak 12:**
Flamenkoa: 'De norte a sur', Vere de Enmedio taldea.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8€

ANTZERKIA

- **Hilak 5:**
'Las mariposas del estómago no han muerto', La Papa Antzerkiaren eskutik.
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

ERAKUSKETAK

- **Hilaren 1etik 14ra:**
Argazkiak: 'Jose Merino Memoriala herri lasterketa: 25 urte ametsak eraikiz'.

- **Hilaren 15etik 26ra:**
Argazkiak: Nazio maila mikologiari buruzko argazki lehiaketaren partaideak.
18:00etatik 20:00etara.
Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK

- **Hilak 27:**
Haurrentzako musikala: 'Los viajes musicales de Lucía'. Impromptu taldea.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

BESTELAKOAK

- **Hilaren 1tik 7ra:**
Gaztela-Leoneko Zentruaren kultur astea: hainbat ekitaldi.

- **Hilak 9:**
Ikus-entzunezko emanaldia: Mongol rallye. 19:00etan.
Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

- **Hilak 16:**
Ikus-entzunezkoaren emanaldia: Mongol Rallye, Ermua eta Mallabiko gazte talde baten eskutik.
18:30ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

- **Hilaren 18tik 21era:**
Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.

- **Hilak 20:**
Motordunen jaialdia: hainbat ekitaldi.
15:00etatik. Probalekun.

Patxi López

Yoga eskola

Sanatana Dharma

- * Osteopatia
- * Bertebrologia
- * Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea
943748593 · 685722131 (Idoia)

TELEFLOR INTERNATIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería **TITANIK**



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da
Konfiantza eta bermea, gure lanaren gidari

4 x 4



Kamioiak



Tailerra

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri
eta galdetu

Kalitate-prezio erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala,- 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15
www.areitiomotor.com / administracion@areitiomotor.com / areitio@areitiomotor.com



UGARO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44
Faxa. 943 17 54 58

ikasi
eta landu

euskara
bizia



Ermuko Kaltxango AEK

Matrikula zabalik azken egunak!

943 17 19 40

kaltxango@aek.org

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org
902 362 294

